

Eder Intxaurtieta Zudaire

Fmaila • Aipamena

Eder Intxaurtieta naiz. Beasainen bizi naiz nire aita, ama eta arrebarekin. Murumendi eskolan ikasten dut eta momentu honetan 4.maila bukatzen ari naiz. Nere zaletasunen artean, eskubaloia, surfa, eskola, kirola eta marrazkiak egitea aipatuko nituzke. Handitan albaitaria izatea gustatuko litzaidake animaliak asko gustatzen zaizkidalako eta nire ametsa txakurtxo bat edukitzea da.



LUKI JABE BATEN BILA

Luki txakur txiki bat da. Kalean bizi da eta jabe bat bilatzen ari da. Marroia, txuria eta beltza da. Oso xuabea eta maitagarria da. Baina utzi ditzagun kontu horiek bere istorioa kontatu behar dizuet eta.

Luki italiarra da, Chingueterren jaio zen eta bertan bizi da, kale txiki eta estu bateko izkina batean. Bakarrik bizi da eta beti triste dago. Bere jabeak izkina horretan abandonatu zuen eta hantxe egoten da bere jabea azalduko dela uste duelako. Jabe bat izan nahi du baina ez du inork hartzen.

Egun batean izkina utzi eta jabe bat bilatzea erabaki zuen. Bidai bat egingo zuen. Egunero ikusten zuen geltokira joan eta tren batean sartu zen. Jende artean ezkutatu zen. Trena gelditu zenean salto egin eta jaitsi zen. Bergamo hirian zegoela entzun zuen. Ibiltzen hasi zen baina ez zekien nora joan. Galduta zegoen eta beldur handia sentitzen hasi zen. Kale txiki bat aurkitu zuen eta lo egitera geratu zen.

Hurrengo egunean hiri horretatik joan zen. Hiri ondoko aeroportu batera heldu zen, maleta batean sartu eta hegazkin barruan bukatu zuen.

Horrela iritsi zen Luki Euskal Herrira. Maletaren jabeak, kotxe bat hartu eta Azpeitiraino iritsi zen. Inor konturatu gabe maletatik atera zen eta kalean gelditu zen berriro gaua pasatzeko.

Hurrengo egunean Azpeitiko plazako iturrira joan zen eta ur pixka bat edan zuen. Egardia kendu eta ibiltzen hasi zen. Ibilian ibilian beste herri txiki batera iritsi zen. Aterpe batean ordu bat deskantsatu zuen eta gero aurrera egin zuen.

Herri handiago batera iristen ari zela, bikote batekin egin zuen topo. Neskak laztandu egin zuen eta mutila hitz egiten hasi zitzaion. Bakarrik eta nekatuta zegoela konturatu zirenean bere etxera eramán zuten. Mantatxo bat jarri zioten eta orduan Luki lo seko geratu zen.

Lukiren ametsa egia bihurtzen ari zen. Jabeak aurkitu zituen. Etxe bat zuen eta han ondo zainduko zuten.